

Ingurumen Buletina

- 1. Zero Zabor helbururantz pausuak Danimarkan ere.***
- 2. Beste igoera bat fakturan, oraingoan gasarenean.***
- 3. EAEn Frackinga debekatzeko Herri Ekimen Legegilea abian.
Sinatu!***
- 4. Pobrezia energetikoak gero eta gehiago eragiten digu,
batzuetan ohartu ere egin gabe.***
- 5. Klima aldaketaren eraginak begi bistakoak dira jada (IPCCren
azken txostenaren laburpena).***
- 6. Enplegua eta soldaten aldeko kanpaina ELAn, baita enplegu
iraunkorren alde ere.***

1. Zero Zabor helburura pausuak zeinen neguan energia berriztagarria sortzen duten haize errotak geratu egiten direla

Gero eta gehiago gara Zero Zabor helburuaren alde egiten dugunok. Denok ez gatoz leku beretik. Batzuk erraustegien alde zeuden, baina orain guztiz aldatu dute beraien iritzia. Honen adibide bat Danimarkan aurkitu dugu.

Danimarkaren datuak gaur egun ez dira eredugarriak: Europan pertsonako hondakin kopuru handiena sortzen duen herrialdea da eta hondakinen %80 erretzen dituzte. Birziklatze tasa %20koa da eta etxeetako hondakinak ez dira gaika biltzen. Momentu honetan duten ereduarekin hondakin gutxiago sortzea garestiagoa da herritarrarentzat, hondakin gutxiago izanik erraustegien finantzazioak gora egiten dutelako eta hau herritarren poltsikotik ateratzen baita.

Baina dagoeneko konturatu dira birziklapen tasa txikiegiak dituztela eta gehiegi erretzen dutela. Eta hau aldatzeko 2050erako jarri duten helburua energia instalazio kutsatzaileak itxiz, erraustegiak barne, erregai fosiletatik aldentzea izan da. Iparraldeko herrialdeetan erraustegien energia berokuntzarako erabiltzen da, baina hain dago zabalduta instalazio mota hau

erraustegiek sortutako energiari eta beraz energia kutsatzaileari lehentasuna emanaz. Adibide honekin argi ikusten da energia politikak nolako eragina duten hondakinen kudeaketan: Energia fosilen alde egiteak erraustegien zabaltzea dakar. Erraustegietako energia berriztagarria dela eta hondakinen kudeaketa eredu iraunkorra dela diotenen gezurra bistan geratzen da.

2. Beste igoera bat fakturan, oraingoan gasaren fakturan

Argindarraren fakturarekin pasa zen bezala, gasaren fakturak ere aldaketak izango ditu. Eta argindarraren joerari jarraituz, igoera fakturaren alde finkoan emango da, hau da, gasa aurrezteak ez du eragin proportzionalik izango fakturan.

Gasa eskuratzeko ordainsari eta kanonak erregulatzen dituen organoa da Merkatua eta Konpetentziaren Komisio Nazionala (CNMC) eta honen arabera, aldaketa honekin erreziboen bidez dauden diru sarrera eta konpainien gastuen artean gaur egun dagoen desfasea ezabatuko da. Berrito ere ditxosozko tarifa defizitarekin topo egiten dugu, oraingoan gasarena.

Badirudi tarifen defizita desagertzeko igoerak hiru kontzeptu hauetan eman behar direla: regasifikaziorako ordainsaria (%37,5), lurrazpiko gordailuetarako kanona (%18,8), eta garraio eta banaketaren ordainsaria (%1,2). Hau da, pertsona arruntok ulertzen ez dugun beste faktura eta sistema bat, baina multinazional handiei primeran datorkiena nahi dutena kobratu diezaguten. Primeran ulertzen duguna politika eta energia enpresa handien artean biraka dabilen atea da. Enagas espainiar estatuko gas garraiorako enpresa handiena da eta espainiar sistemaren gasaren sarbide puntuak, biltegiak, garraioa eta banaketa koordinatzen ditu. Eta zergatik hitz egiten dugu Enagasi buruz? Ba otsailean Enagasen administrazio kontseiluak Ana Palacio eta Isabel Tocino PPko ministra ohiak eta duela aste gutxi arte industria zuzendari nagusi izan den Luis Valero kontseilari izendatzea adostu duelako. Agian ez dugu ulertuko fakturaren kalkulua nola egiten den, baina oso argi daukagu biraka dabilen atea nola eta zertarako funtzionatzen duen.

Gasaren prezioa izugarri igo da azken hilabeteetan, eta oraindik ziklo konbinatuko zentralak, Boroa, Bahia Bizkaia edo Castejongoak, gasarekin elikatzen jarraitzen dute, eta baita Zabalgardi ere. Honek gure

hileroko faktura modu esponentzian igotzea esan nahi du, ingurumena kutsatu eta gure osasuna kaltetzeaz gain. Zerren zain daude erabakiak hartu eta gure energia ereduak aldatzeko? Utz ditzagun alde batera energia fosilak eta berriztagarrietan oinarritu gaitzen. Ingurumena eta osasunagatik ez bada, ez baitzaie batere axola, egin dezatela gutxienez gure poltsikoengatik! Nahiz eta honek ere utopia bar dirudien.

3. EAEn Frackinga debekatzeko Herri Ekimen Legegilea abian da. Sinatu!

Dugun energia ereduak energia fosilean dago oinarrituta, hau da, gehien kutsatzen duen energia, klima aldaketa eragiten duenean eta mugatua denean. Batez ere petrolio eta gasa, eta hauengandik eratorriak diren beste iturri batzuk dira gehien erabiltzen ditugunak. Energia ereduak beharrezkoa du aldatzea, energiaren trantsizioa behar beharrezkoa da. Trantsizio hau planteatzen denean badago energia nuklearraren alde egiteko joera bat. Energia mota honek ere kutsadura handia eragiten du, eta zer esanik ez, arrisku izugarri bat da. Baina ez da hau energia trantsiziorako aurkeztu den soluzio faltsu bakarra. Azkenaldian frackinga indar handia hartzen ari da munduko hainbat

herrialdetan, eta baita Euskal Herrian ere.

Badirudi lur azpian dagoen gasa ateratzeko saiakera arriskutsuak batzuentzat etorkizuneko irtenbidea direla. Baina hau ere energia fosil bat da eta ez da bidezkoa. Lur azpiko gasa fracking deitzen den teknika kutsagarriarekin egiten da (lurra, akuiferoak eta airea kutsatzen ditu), eta ateratzen den gasa ikatza besteko kutsadura sortzen duen gas mota bat da. Arrisku hauek nahikoak dira energia iturri baztertzeko, baina hainbat lekuetan honen aldeko apustuak egiten ari dira, ez herritarren mobilizaziorik gabe noski. Europa mailan, Frantzia eta Errumanian nekazarien borroka garrantzitsuenetako batean bihurtu da. Lurrak kendu nahi dizkiete ustiaketa mota hau zabaltzeko. Kontrako egoerak ere badaude, Alemaniak adibidez teknika hau baztertu egin du. Kataluniak ere debekatu egin du frackinga bere lurraldean, baita Kantabriak ere, nahiz eta Rajoyren gobernuak helegitea jarri dien.

Euskal Herrian ere baditugu adibideak, Nafarroan parlamentuak frackinga debekatu du, EAEn prospekzioetarako baimenak eman diren bitartean. Ekimen ezagunena Araban izan den arren gainontzeko lurraldeetan ere baimenak eskatuta daude metodo honen bidezko ustiaketak froga gisa egiteko. Baina

noski, hemen ere herritarren aurka egin beharko dute. Dagoeneko asko dira frackingaren aurkako plataformak eta gero eta indar handiagoa lortzen ari gara. ELAk ere hauetako batzuetan parte hartzen du. Azken ekimena plataforma hauek aurrera eraman dute. Frackinga EAEn debekatzeko Herri Ekimen Legegilea aurkeztu dute Gasteizko legebiltzarrean eta tramitera onartu da, iaz ez bezala orduan ere aurkeztu baitzuten eta ez zen tramitera onartu. Martxoaren 20tik hasita, lau hilabetetan zehar 30.000 sinadura jaso behar dira eta ziur gaude lortuko dugula, beraz, sinatu!

4. Pobrezia energetikoak gero eta gehiago eragiten digu, batzuetan ohartu ere egin gabe

Sarritan hitzik gabe uzten gaituzten berriak irakurtzen ditugu, gero eta gehiagotan: *“Ingurumen Zientzien Elkartearen ikerketa baten arabera, 2012an igo egin zen beraien argindar eta gasaren faktura ordaintzeko beraien diru sarreren zati handiegi bat erabiltzen dutenen kopurua. Estatuan %16,6a dira, 7 milioi pertsona inguru, 2010ean %12a zen bitartean, bost milioi pertsona inguru. Hau zertan ikusten da? Neguan hotza eta udan beroa pasatzen duten*

familiak, hezetasunak eta lizunak hartutako etxeak, ordainketa ezagatik argindar mozketak (1,4 milioi 2012an, 2006koen bikoitza), oinarrizko beharrei erantzuteko diru gutxiago, eta are larriagoa, heriotza goiztiarrak neguan. OMSen (Munduko Osasun Erakundea) arabera 7.200 heriotza ekidin ahalko ziren arazo honekin bukatuko balitz. Igoera honen errua bi fenomeno paralelok dute: krisiak espainiarren diru sarrerak murriztu ditu energiaren prezioa izugarri igo den bitartean.” (El País, 2014-3-27).

Bukaeratik hasita, argitu beharra dago hau idatzi duenari diru sarrerak ez dituela krisiak murriztu, etengabeko lapurreta bat izaten ari dela erreformaz erreforma. Eta lan erreformak eta negoziazio kolektiboaren erreformak soldata lapurtzen diguten bezala, energiaren erreformak energia eskuraz ezin bihurtu duela. Ondorioa: leku beretik eta helburu berarekin datozen bi erabaki: gure kontura aberasten jarraitzea.

Behin puntu hau argi utzita, salatu beharra dago pobrezia energetikoa izurrite bat bezala ari dela etxe askotara zabaltzen. Askok naiz eta sistema krudel baten biktimak izan, lotsagatik oraindik onartzen ez duten errealitatea da, lapurrak izango bagina bezala! Sarritan ez gara konturatzen konpainia

energetikoek gudan eragiten dituzten gehiegikeriotaz. Baina gu ez gara egoera honen erantzuleak, erantzuleak enpresa handiak eta gobernuak dira, erreformaz erreforma eta inongo lotsarik gabe, sarraski hau antolatzen ari direnak.

ELAn eredu energetikoaren aldaketa beharra azaltzen ahalegina egiten ari gara. Horregatik parte hartzen dugu Gure Energia plataforman (Eredu Energetiko Berri baten aldeko plataforma estatalaren euskal nodoa). Eta arazo hau eta alternatiba sozializatu nahian, hona hemen pobrezia energetikoa eta defendatzen dugun eredu energetikoaren azalpen bat:

- Pobrezia energetikoa familia baten diru sarreren %10 baino gehiago energia kontsumora bideratzea da: elektrizitatea, janariak hozkailuan mantendu eta prestatzea, berokuntza, ur beroa, mugikortasunerako erregaiak,... hau da, energia guztien batura.
- Gaur egun energia gastu erreala ezagutzea posible da, baina ez dakigu zein izango litzatekeen gastua oinarrizko bizi baldintzak, higiena eta aukerak eskuratzeko.
- Honen arabera HEHko populazioaren %15a inguru pobrezia energetiko egoeran egongo litzateke. Eta igotzen doa...
- Kontsumitutako energiaren zati handi bat

eraikinetan ematen den energia xahuketari dagokio (eraginkorrek ez diren sistemak):

inguratzaile termikoak, beroa ekoizteko eta banatzeko instalazioak, elektrotresna eta argiak, aireztatzea eta airearen kalitatea.

- Pobrezia energetiko egoeran dagoenak ez du baliabide ekonomikorik beharrezkoak diren hobekuntza lanak egiteko.

- Energiaren kostea igotzeak zirkulu bizioso bat eratzen du, urtero haziz pobrezia energetikoa pairatzen duten familien kopurua.

- Pobrezia energetikoak ez duenez uzten osasun eta bizitza baldintza egokiak izatea, bizitza esperantza murrizten du.

- Menpekotasun energetikoak herritarrak esklabotza egoeran jartzen ditu.

- Independentzia energetikoak zera esan nahi du: energia kontsumoa gutxitzea eta energia fosilekiko eta lurraren desertifikazioa edota azidifikazioa eragiten dutenekiko (gaizki ustiatutako biomasa) menpekotasuna ezabatzea; baita oinarrizko lehengaiak sistematikoki deuseztatzen dituzten sistemak (hondakinak erretzea) baztertzea ere.

- Beste eredu energetiko bat posible da. Oinarrizko gai honen inguruan informazioa bidaltzen jarraituko dugu ondorengo buletinetan.

5. Klima aldaketaren eraginak begi bistakoak dira jada (IPCCren azken txostenaren laburpena)

Beroketa globalaren eraginak begi bistakoak dira, hau guk bagenekien jada, baina orain IPCCren (Nazio Batuetako Klima Aldaketari buruzko Adituen Talde Intergubernamentalak) azken txostenak baieztatzen du. 2013ko irailean argitaratutako azken txostenak klima aldaketaren ardura giza jarduerak dutela ondorioztatu zuen. Orain aurkeztu denak klima aldaketaren eraginak berrikusten ditu. Eraginak ez dira etorkizuneko mehatxua, dagoeneko leku askotan ikusi daitezke, eta ez gaude prestatuta inpaktu hauei aurre egiteko. Hauek dira txostenak aditzera ematen dituen arriskuak:

- Gatazkak. Populazioaren desplazamenduak aurreikusten dira, batez ere herrialde pobreenetan, eta honek zeharka bada ere, indarkeria eta gatazkak areagotu ditzake.

- Pobrezia gehiago. Klima aldaketaren eraginak zuzenean eragiten die pobrenei, beraien biziraupenerako baliabideak gogor jotzen baititu: uztak gutxitu, etxebizitzak suntsitu eta janariaren prezioak igo.

- Elikadura segurtasuna. Beroketa globalak, itsasoaren maila igotzeak eta prezipitazioen

aldaketak nekazaritza lurri eragiten die. Oinarrizko laboreek (garia, arrosa eta artoa) kalteak izango dituzte uztetan.

- Osasuna: Zonalde batzuetan beroketaren ondorioz hilkortasun handiagoa lotzen zaio beroari hotzari baino. Temperatura eta prezipitazio aldaketek dagoeneko aldatu dute uraren bitartez transmititzen diren gaixotasunen banaketa.

- Ozeanoak: Eraginak igartzen ari dira. Beroketak itsas espezieen desplazamendua, azidifikazioa eta oxigeno urritasuna eragiten du.

- Ekosistemak: Habitat bakarrak eta mehatxatuak arriskuan dira jada. Bi graduko igoerarekin arriskua espezie gehiagotara zabalduko da.

- Landa eremua: Arriskuak landa eremuetan areagotzen ari dira, batez ere edateko eta ureztatzeko ura izateko zailtasunei eta uzten produktibitateari dagokienean.

- Ura eskuratzea: Lurrazaleko eta lurrazpiko ur berriztagarriak modu esanguratsuan gutxituko

dira, ura izateko konpetentzia gogorragoa bihurtuz.

Abisu hauek nahikoa larritasun dute beste alde batera begiratzen jarraitzeko, ordua da klima aldaketaren aurkako neurriak hartzeko. Ezin bestekoa da emisioen murrizketa drastikoekin hasi eta ekonomiaren trantsizio ekologikoarekin jarraitzea eredu ekologiko eta justuago bat lortzeko.

6. ELAk enplegua eta soldaten aldeko kanpaina jarri du martxan, baita enplegu iraunkorren alde ere

Hasi berri den enplegua eta soldaten aldeko kanpaina enplegu iraunkorrek bere lekua izango du te aldarrikapenetan. Horregatik, enplegu iraunkorren inguruko material zehatza aterako dugu, trantsizio ekologiko eta soziala posible egingo duten enpleguei buruzkoa. [Hemen](#) duzue ELAren enplegua eta soldaten aldeko kanpainaren bideoa.